



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko ekainaren 1a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duena (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har ditzan Biurdana institutua handitzearen aurka irakasleen txostenean agertzen diren puntuak. Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek aurkeztu dute (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da organo judizialekin adostu dezan zorra bide judizialek erreklamatzeko prozeduraren hasiera, etxetik bota aurretikoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara erabil dezan, gaztelaniarekin batera, Nafarroako Museoko testu idatzietan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan eta testu inprimatu-etan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har ditzan landa eremuko eskolak mantentzeari buruzko zenbait puntu. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Nafarroako 0-3 hezkuntza-zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeko dekretu proiektua. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (17. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak GIBaren transmisioaren prebentzioarekiko konpromisoa agertzen du. Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkeztu du (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan. Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztu du (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziarra dezan zerikusia duten eragile guztien parte-hartzea osasun zerbitzuaren eredu aldaketan. Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Ezkerreko Ezkerra parlamentu-taldeen aurkeztu dute (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten. Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak bazter utzia (22. or.).
- Adierazpen instituzionala, Kooperatiben Nazioarteko Urteari babes ematekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (22. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Kutzari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (23. or.).
- Galdera, 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (24. or.).
- Galdera, Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruzkoa, Aitziber Sarasola Jaca andreak egina (24. or.).
- Galdera, Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (25. or.).
- Galdera, Alkozko urtegiaren traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (26. or.).
- Galdera, Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (26. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularraren eleduna aldatzea. (27. or.).
- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehia-keta bidez betetzeko. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko maiatzaren 23an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentura igorri du Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko Foru Lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

2.- Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3.- Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

1

Nafarroako Gobernuak 2012. urterako defizitaren helburua betetzeko duen konpromisoaren ondorioz, eta ekonomiaren gaur egungo bilakaera eta horrek Nafarroako Gobernuaren diru-bilketarako ahalmenean izan duen eragina direla kausa, neurri batzuk hartu behar dira diru-sarrera publikoak handitzeko eta gastuak, hasierako aurreikuspenekin alderatuta, murrizteko. Horiek horrela, beharrezkoa da, antolaketa neurri batzuk ezartzea, eta horiek konbinatzea langileen lan baldintzak zuzenean ukitzen dituzten beste neurri batzuekin.

Nafarroako Gobernuak abian jarri dituen antolaketa neurrien helburua da gastua murriztea, langileriaren arloko jarduketa batzuetarako irizpideak finkatuz, arlo hauetan besteak beste: erretiroen ondorioz gelditzen diren lanpostu hutsak betetzea, langileak hainbat arrazoirengatik ordezteko egiten diren kontratazioak, eta lanaldi arruntaren gainetik egiten diren jarduketak murriztea, aparteko orduen bidez edo produktibitatearen osagarriaren bidez legezko konpentsazioa dutenak.

Langileen lan baldintzetan zuzeneko eragina duten neurriak dira, hain zuzen, foru lege honen xede. Kontuan harturik neurri hauen zergatia aurrekontuen eta ekonomiaren egungo egoera dela, neurri gehien indarraldia 2012. urtera mugatzen da. Aurrerago aztertuko da haien indarraldia hurrengo urteetara hedatu behar den edo ez.

2

Neurri horietako baten ondorioz, eten egiten da langileek, hirurogeita bost urte bete eta erretiroa

nahitaez hartzeko adinera iritsita, jardunean segitzeko duten aukera. Neurri honetarako zenbait salbuespen ezartzen dira, konparazio batera, erretiro-saria jasotzeko eskubiderik sortu ez duten langileen kasuan. Jardunean segitzea baimentzen ahalko da, orobat, zerbitzu publikoak egoki emateko erretiroko adina atzeratzea ezinbestekoa den kasuetan. Azkenik, hiru hilabeteko epea ematen da, nahitaezko erretiroa hartzeko adina beterik, gaur egun jardunean dauden langileek erretiroa eskatzeko.

Horren ondotik, bi neurri jasotzen dira, langileen bi soldata kontzeptu eteten dituztenak: batetik, elementu aldakor batzuegatik (jaiegunetako eta gaueko lana, eta bertan egon beharreko guardiak eta guardia lokalizatuak) jasotzen den konpentsazioa, opor egunei dagokienez; eta bestetik, ezkontidearentzat edo bikotekide egonkorarentzat ezarritako familia laguntza, bestelako diru-sarrerarik ez duten kasuetan.

Hurrengo neurria Nafarroako administrazio publikoetako langileen lanaldiari dagokio. Sektore publiko osoarentzat oro har hartutako neurrien ondorioz, asteko hogeita hamazazpi ordu eta erdiko lanaldia ezartzen da batez beste. Erabaki horrek urteko orduen kopurua 1.628 orduan finkatzea dakar. Urteko kopuru hori, era berean, egokitu behar da ezarrita dauden lanaldi mota guztietan. Administrazio Publiko bakoitzak bere burua antolatzeko duen ahalmena errespetatzeko, administrazio bakoitzak banatuko du beren langileen urteko lanorduen kopurua zerbitzu bakoitzaren beharren arabera.

Foru lege honetan jasotako beste neurri baten ondorioz, lana dela-eta egiten diren bidaien kalteordain gisa ezarrita zeuden dietak kentzen dira. Hemendik aurrera, behar bezala justifikatutako gastuak baino ez dira itzuliko. Era berean, mugatzen dira osasun publikoak jasotzen ez dituen prestazio batzuk, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzua erabiltzen duten funtzionarioek aitortuak dituztenak; zehazki, optikakoak eta odontologiakoak.

Neurrien azkeneko bi atalak sindikatuen ordu kredituari buruzkoak eta Nafarroako Gobernuo kideei eta gainerako goi-karguei buruzkoak dira. Ordezkarri sindikalek beren eginkizunak egiteko duten ordu kredituari dagokionez, % 10 murrizten da. Murrizketa hori indarreko araudian, hots, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuan eta Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoan ezarritakoaren gainetik dagoen kredituari egotzi beharko zaio. Goi-karguei dagokienez, horiek guztiek edo batzuek orain arte zituzten prestazio batzuk kentzen dira,

hala nola nominako deskontuak Gizarte Segurantzaren kotizatzeari, bizi-asegurua eta istripu-asegurua, eta Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuko afiliazioa. Orobat, murriztu egiten da Gobernuo goi-kargu izandakoen zatitza ezarritako osagarri pertsonala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio funtzionario direnentzat.

Xedapen gehigarrietan zehazten da nola aplikatuko zaizkien foru lege honetan jasotako neurriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako estatutupeko eta lan-kontratuko langileei; izan ere, haien lan baldintzak funtzionarioek dituztenekin parekatuta daude. Nafarroako toki entitateetako lan-kontratuko langileei dagokienez, toki entitate bakoitzaren esku uzten da neurrien aplikazioa, bakoitzaren egoera zehatzaren arabera. Bestalde, foru lege hau Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoen zerbitzuko lan-kontratuko langileei aplikatzeko baldintzak finkatzen dira.

Azken xedapenetan zenbait aldaketa egiten zaizkie Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeari, zeinaren bidez arautzen baita Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa. Aldaketa horiek, alabaina, ez dute zerikusirik foru lege honen artikuluetan jasotzen diren neurri ekonomikoekin. Aldaketa horietako batzuk egin behar dira ordezkarri sindikalekin lortutako zenbait akordio legezatzeko; konparazio batera, seme-alaba bat edo familiarikoa bat zaintzeko eszedentzia bereziaren arauketa, administrazio langileen mugikortasuna edo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen alde aurreko egokitzapenak beren eremu bakoitzean. Bestalde, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua araudia Osasun Departamentuko gainerako erakunde autonomoetako langileei aplikatzea aurreikusten da. Neurri hori beharrezkoa da departamentu horren barrenean egiten diren antolaketa-aldaketek ukitutako langileen lan baldintzak aldatu behar ez izateko.

Azkenik, foru lege honek 2012ko uztailaren 1etik aurrera hartuko duela indarra aurreikusten da. Zehazten da, orobat, 2012. urteari dagozkion neurriak egun horretatik aurrera izanen dituztela ondorioak, urtea bukatu arte, deusetan galarazi gabe hurrengo ekitaldietan ere osorik edo partez aplikatzea ekonomiaren eta aurrekontuen egoeraren bilakaeraren arabera. Hori legez dagoen mailako arauen bitartez arautuko da.

1. artikulua. Langileen jarduneko zerbitzua luzatzea.

1. Hirurogeita bost urte bete eta nahitaezko erretiroa hartzeko adinera iritsita, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek jarduneko zerbitzua luzatzeko duten aukera ez da aplikatuko 2012. urtean, langilearen aurreikuspen sozialako sistema zein den gorabehera.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakotik aparte uzten dira nahitaezko erretiroa hartzeko egunean beren aurreikuspen sozialeko sisteman erretirosaria jasotzeko eskubidea sortzeko ezarritako gabealdia osatu ez duten langileak. Horrelako kasuetan, jarduneko zerbitzuan segitzerik izanen dute gabealdi hori osatu arte, eta betiere, hirurogeita hamar urte bete arte.

3. Irakasleek nahitaezko erretiroa hartzeko adina betetzen duten ikasturtea bukatu arte luzatzen ahalko dute zerbitzualdia.

4. Foru lege honek indarra hartzen duen egunean nahitaezko erretiroa hartzeko adina beteta izan arren jardunearan segitzen duten Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek hiru hilabeteko epea izanen dute egoera hori bukatzeko eta erretiroa eskatzeko. Epe hori erretiroa eskatu gabe bukatuta, ofizios deklaratu da, epea bukatzearekin batera.

5. Salbuespen gisa, Nafarroako administrazio publikoek ahalmena izanen dute egoera batzuk luzatzeko baimena emateko, zerbitzu publikoak behar bezala emateko ezinbestekoa bada langile jakin batzuek jarduneko zerbitzuan segitzea aldi jakin batean, eta betiere, hirurogeita hamar urte bete arte. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileei dagokienez, baimen berezi hori Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bidez ematen da.

6. Artikulu honetan aipatutako aurreikuspenak berarekin dakar etetea Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen 32. artikulua aplikazioa.

2. artikulua. Elementu aldakorren konpentsazioa langileen oporraldietan.

1. 2012. urtean, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei ez zaie ordainduko oporraldiei dagozkien elementu aldakorren konpentsazioa, hots, gaueko lanaren konpentsazioa, jaieguneko lanaren konpentsazioa eta bertan egon beharreko guardiak eta guardia lokalizatuak egitearen konpentsazioa.

2. Artikulu honetako aurreikuspenak berarekin dakar honako arau hauen aplikazioa etetea: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berariazkoa arautzen duen urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 17. artikulua 2. idatz-zatia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek txandaka, gauez eta jaiegunetan lan egiten dutenean hartu beharreko diru konpentsazioak arautzen dituen azaroaren 4ko 225/2002 Foru Dekretuaren 7. artikulua eta, orobat, horri guztiari dagokionez, toki entitateetan dagoen araudia, halakorik baldin badago.

3. artikulua. Familia laguntza.

1. 2012. urtean zehar Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei ez zaie ordainduko ezkontideak edo bikotekide egonkorak bestelako diru-sarrerarik ez izateagatik ematen den familia laguntza izeneko soldata kontzeptua.

2. Artikulu honetan jasotako aurreikuspenak berarekin dakar Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 50. artikulua 1.a) idatz-zatiaren aplikazioa etetea.

4. artikulua. Lanaldia.

1. 2012. urtean, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldia hogeita hamazazpi ordu eta erdikoa izanen da astean batez beste, hau da, 1.628 ordu urtean.

2. Aurreko idatz-zatian finkatutako urteko lanorduen kopuruaren gainean behar den konpentsazioa aplikatu ondoren, txandaka aritzen diren Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioek lanpostuan benetan egon beharreko lanaldi hau izanen dute:

A) Goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanda: 1.493 ordu.

B) Lanaldi malgua (basozainak): 1.548 ordu.

C) Gauetako txanda finkoa: 1.571 ordu.

D) Goiz eta arratsaldeetako txanda, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.590 ordu.

E) Lanaldi zatitua, igande eta jaiegunetan lan eginda: 1.605 ordu.

3. Aurreko idatz-zatian ezarritako ordu konpentsazioetan, baita txandaka, gauetan edo jaiegunetan lan egiteagatik ezarritako konpentsazio ekonomikoetan ere, jasota daude lanpostu guztietan gerta daitezkeen gorabeherak eta berezitasunak oro; besteak beste, txandakako lanaldiak, txanden artean informazioa eman beharra, etab.

4. Urteko lanordu kopuruaren banaketa Administrazio Publiko bakoitzak eginen du zerbitzu bakoitzaren beharren arabera. Dagokion Mahaian beharrezko negoziazioa eginda, eta, betiere, ezarritako urteko ordu kopurua errespetatuz, eremu edo langile-talde jakin batzuetan oro har ezartzen denaz bestelako banaketa egin daiteke, baldin eta justifikatzen bada beharrezkoa dela zerbitzu horiek egoki emateko.

5. Artikulu honetan jasotako aurreikuspenaren ondorioz, eten egiten da abenduaren 27ko 624/1999 Foru Dekretuaren 1. eta 2. artikuluen aplikazioa. Foru dekretu horren bidez, Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldia-uren urteko lanordu-kopurua finkatu zen, baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileentzako ordu konpentsazioak ere.

5. artikulua. Zerbitzuko dietak.

Zerbitzua dela-eta egin beharreko bidaien kalte-ordain gisa ezarritako dietak kendu egiten zaizkie Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei. Foru lege honek indarra hartzen duenetik, behar bezala justifikatutako gastuen zenbatekoa baizik ez da itzuliko.

6. artikulua. Osasun Laguntzako Zerbitzuaren "Erabilera Berezia" izeneko modalitateko tarifak.

1. 2012. urtean, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuaz baliatzen diren Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioentzako optikako eta odontologiako prestazioek tarifa hauek izanen dituzte (prestazioak abuztuaren 19ko 186/2002 Foru Dekretuaren eranskinaren 9. eta 10. ataletan ezarrita daude):

– Optika: betaurreko graduatuen eta ukipenlente graduatuen kasuan, kostuaren % 75 itzuliko da. Kontzeptu horiek direla eta, gehienez 200 euro itzuliko zaizkio onuradun bakoitzari urte natural bakoitzean.

– Odontologia: Odontologiako gastu guztietan, kontsultak eta kirurgiak barne, guztirako kostuaren % 60 itzuliko da. Atal honetan, gehienez 200 euro itzuliko zaizkio onuradun bakoitzari urte natural bakoitzean.

2. Prestazio farmazeutikoari, prestazio ortoprosesikoari eta osasun garraioari dagokienez, Erabilera Bereziko Osasun Laguntzako Zerbitzuaz baliatzen diren funtzionarioei Osasun Sistema Nazionaleko onuradunek Nafarroan dituzten baldintza berberak aplikatuko zaizkie.

3. Aurreko idatz-zatietan jasotako aldaketak aplikatuko zaizkie foru lege honek indarra hartu

eta hurrengo hilabetetik aurrera itzultzeko aurkezten diren gastuei, kontuan hartu gabe gastuak noiz gertatu diren.

7. artikulua. Sindikatuen ordu kreditua.

1. 2012. urterako, % 10 murrizten da, oro har, sindikatuek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan gaur egun duten ordu kreditua. Murrizketa hori eginda ere, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ordezkari organoetako kideentzat finkatutako ordu kreditua errespetatu beharko da, eta, orobat, ordezkari sindikalentzat Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoan finkatutakoa.

2. Aurreko idatz-zatian jasotako neurriaren aplikazioa errazteko, sindikatuek aukera izanen dute ordu kredituen transferentziak egiteko hauteskunde unitate batetik bestera, mugarik gabe.

3. Murrizketa honen ondorioz eten egiten da, partez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako eskubide sindikalei buruz Administrazioaren ordezkariak eta sindikatuek 1994ko urriaren 18an sinatutako Akordioaren aplikazioa, baita Administrazioaren esparru sektorialetan dauden gainerako akordioaren aplikazioa ere.

4. Artikulu honetan jasotako sindikatuen ordu kredituaren murrizketa Nafarroako gainerako administrazio publikoetan ere aplikatuko da, betiere 1. idatz-zatian jasotako araudian finkatutako ordu kreditua errespetatuz.

5. Eskubide sindikalen aplikazioaren ondorioz, lanpostura joan beharraz salbuetsita dauden langileek beren lanpostuari dagozkion oinarrizko ordainsariak eta lan osagarriak jasoko dituzte, eta, horiez gainera, beren lanpostuen ohiko lanaldiaren ondoriozko elementu aldakorak, hots, txandakako lanari, gaueko lanari eta jaiegunetako lanari dagozkienak. Horrenbestez, beren lanaldi arruntekoak ez diren beste zerbitzu erantsi batzuk egiteagatik aurreikusita dauden konpentsazioak ez dituzte jasoko.

8. artikulua. Nafarroako Gobernuo kideei eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen goi-karguei buruzko neurriak.

1. Gizarte Segurantzako kotizazioa dela-eta nominetan egiten den deskontua kalkulatzeko, Nafarroako Gobernuo kideei arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

2. Nafarroako Foru Komunitateko goi-karguen-tzat berariaz sinatutako bizi-aseguruak eta istripu-aseguruak indarrik gabe uzten dira.

3. Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen Erabilera Bereziko Osasun Laguntza-ko Zerbitzutik ateratzen dira Nafarroako Gobernu-ko kideak eta gaur egun Gobernuan dauden gainerako goi-karguak eta goi-kargu izandako guz- tiak, salbu eta hartarako eskubidea dutenak siste- ma horri atxikitako funtzionario izateagatik.

4. 2012. urterako, Nafarroako Gobernuko kide- en eta Nafarroako Foru Komunitatearen Adminis- trazio-ko goi-karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean ezarritako osagarri pertsonala, 3.bis artikulua 5. idatz- zatian hain zuzen, funtzionarioaren mailaren hasi- erako soldataren % 10era murrizten da.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege hau nola aplikatu Nafarroako administrazio publikoeta- ko estatutupeko eta lan-kontratuko langileei.

1. Foru lege honetan jasotako aurreikuspenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko esta- tutupeko eta lan-kontratuko langileei aplikatuko zaizkie, funtzionarioentzat ezarritako baldintza berberetan.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko- en zerbitzuko lan-kontratuko langileen kasuan, administrazio bakoitzak erabakiko du nola aplikatu neurriak, foru lege honetan ezarritako irizpide oro- korrei jarraikiz.

Bigarren xedapen gehigarria. Foru lege hau nola aplikatu Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratu- ko langileei.

Nafarroako Gobernuaren menpeko enpresa publikoetako goi-karguei eta lan-kontratuko langi- leei honako hauek aplikatuko zaizkie: 1. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatiak, jardunean segitzeari buruzko- ak; 5. artikulua, zerbitzuko dietei buruzkoa; 7. arti- kuluaren 1. eta 2. idatz-zatiak; eta artikulua horren gainerako idatz-zatietako agindu orokorrak, sindi- katuen ordu kredituari buruzkoak. Lanaldiari dago- kionez, aplikatzekoa zaien hitzarmen kolektiboan ezarritakoa aplikatuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. Nolanahi ere, foru lege honetako neurrien ondorioz gertatzen diren lanaldi aldaketengatik ez da inolako lansari- igoerarik izanen.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabe- tzen diren arauak.

Arau hauek indargabetzen dira:

a) Lehendakaritzako eta Barneko kontseilaria- ren urtarilaren 18ko 5/1999 Foru Aginduren 1. eta 2. artikulua eta, orobat, horri dagokionez, toki entitateetan dauden arauak. Aipatutako foru agin- du horren bidez Foru Komunitateko Administrazio- aren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen dieta eta kilometrajeagatik ordainak fin- katu ziren.

b) Foru dekretu honek ezarritakoari aurka egi- ten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publi- ko- en zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bate- gina aldatzea.

1. Testu bategin horren 27. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

“1. Funtzionarioak eskatuta, eszedentzia bere- zia onar daiteke, hiru urterako gehienez subjektu eragile bakoitzeko, honelako kausa hauek justifika- tuz gero:

a) Seme-alaba bakoitza zaintzeko, naturalak zein adoptatuak, eta adoptatu aurreko harrera- fasean edo harrera iraunkorrean daudenak. Epea haurra jaiotzen denetik edo, bestela, epaileen edo administrazioaren ebazpenaren egunetik aurrera kontatuko da.

b) Langilearen kargura dagoen odol edo ezkontza bidezko ahaideren bat zaintzeko, biga- rren gradu artekoa -hori barne-, baldin eta adina- gatik edo istripu edo eritasun baten ondorioz bere kasa bizitzeko gauza ez bada eta lan ordaindurik egiten ez badu.

2. Kasu guztietan, eszedentzia berezia emate- ko, funtzionarioak deklaratu beharko du bitartean ez duela beste jarduera profesionalik edo lanik egin behar.

3. Eszedentzia berezian dauden langileek jato- rrizko lanpostua gordetzeko eskubidea izanen dute, baina ez dute eskubide ekonomikorik sorra- ziko. Antzinasunaren ondorioetarako, egoera horretan dirauen denbora guztia kontatuko zaio, eta eskubide pasiboen ondorioetarako, langilea atxikita dagoen aurreikuspen sozialeko araubidea- ren araudian xedatutakoari lotuko zaio.

4. Eszedentzia berezia haren subjektu eragile- ari dagokion gehieneko eperako emanen da. Gehieneko epea bukatuta, interesdunek jarduneko zerbitzura itzuli beharko dute eszedentzia bukatu eta biharamunean, nor bere jatorrizko lanpostura.

5. Emandako eszedentzia berezia bukatu ez bada ere, interesdunek noiznahi eskatzen ahalko dute jarduneko zerbitzura itzultzeko. Itzultzea erabaki ondoren, hilabeteko epean gauzatu behar da. Hala egin ezean, langileak galdu eginen du funtzionario izaera.

6. Aurreko idatz-zatian aurreikusita dagoen alde aurreko itzultzea gertatzen bada, funtzionarioek beste eszedentzia berezi bat eskatzen ahalko dute subjektu eragile bera dela kausa, baina behin bakarrik, gehieneko epea bukatu arte gelditzen zaien denbora bete arte. Horrelakoetan, sei hilabete utzi beharko dira jarduneko zerbitzura itzultzen denetik hurrengo eszedentzialdia hasi arte.”

2. Aipatutako testu bateginaren 83. artikulua 3.b) idatz-zatia aldatu da. Hona testu berria:

“b) Osasun Departamentuko erakunde autonomoi atxikitako langileak.”

3. Aipatutako testu bateginari hogeita batgarren xedapen gehigarria erantsen zaio. Hona testu berria:

“Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan administrari lanpostuak (C maila) eta administrari laguntzaileen lanpostuak (D maila) betetzeko egiten diren lekualdatze lehiaketak batera eginen dira, eta deialdi bakar batean.”

Azken xedapenetako bigarrena. Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen berariazko erregimenari buruzko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen aldaketak.

1. Foru lege horri 36. artikulua erantsi zaio, honako hau dioena:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eremu jakin bati atxikitako langileentzat mugatutako merezimendu lehiaketa murriztuaren bidez lan-

postuak betetzeko alde aurreko barne egokitzapenetan, bermatuko da eremu horretako plantilla-langile guztiek baldintza berberetan parte har dezaketela, betiere eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte, zeinahi delarik parte hartu aurretik zuten araubide juridikoa, hots, funtzionarioena, lan-kontratuko langileena edo estatutupeko langileena, eta horrek ez du ekarriko araubide hori aldatzea. Dena dela, lanaldi partzialeko lan-kontratuko langileek lanaldi osoko lanpostu bat eskuratzeko gero, funtzionario izaera berenganatuko dute.

Aldez aurreko barne egokitzapenetan, funtzionario araubidea edo estatutupeko langileen araubidea dutenek aukera izanen dute lanaldi partzialeko lan-kontratatu lanpostu bat eskuratzeko. Horrelako kasuetan, borondatezko eszedentziara igaroko dira funtzionario edo estatutupeko langile gisa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren 26.1.a) artikuluan araututako baldintzetan.”

2. Zortzigarren xedapen gehigarria erantsen zaio aipatutako foru legeri, honako hau dioena:

“Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berariazko erregimena arautzen duen foru lege hau, eta orobat, legea garatzeko ematen den legezko eta erregelamenduzko araudia Osasun Departamentuaren menpeko gainerako erakunde autonomoi atxikitako langileei ere aplikatuko zaizkie.”

Azken xedapenetako hirugarrena. Indarra hartzea.

1. Foru lege honek 2012ko uztailaren 1ean hartuko du indarra, salbu eta horretarako beste egun bat zehaztua duten idatz-zatiak.

2. 2012. urteari dagozkion neurriek ondorioak izanen dituzte foru legeak indarra hartzen duenetik urte hori bukatu arte.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2012ko maiatzaren 23an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeko 4. artikulua aldatzen duen Foru Lege proiektua.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Hezkuntza Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko ekainaren 25eko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 1. artikuluekin bat, Espainiako hezkuntza sistemaren oinarrietako bat ekitatearen printzipioa da, horrek bermatuko baititu aukera berdintasuna, hezkuntzak guztiak hartzea eta bazterkeria eza, batetik, eta desberdintasun pertsonal eta sozialak, bereziki desgaitasunak eragindakoa, berdinduko dituen elementuaren eginkizuna joka dezakeelako, bestetik.

Nafarroako Eskola Kontseilua, berriz, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan irakaskuntza ez-unibertsitarioaren programazio orokorrarekin zerikusia duten sektore sozial guztien kontsulta eta partaidetza bideratzen dituen organo gorena da.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak 7.1.i) artikuluan xedatzen du Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: "Irakaskuntzaren kalitatea hobetzera eta Nafarroako gizartearen egoerari egokitzera bideraturiko xedapen eta jarduketara orokorrak eta gizarte-sektoreen artean eta giza-banakakoen artean dauden diferentzia eta mailaketak konpentsatzera bideraturikoak".

Kontuan hartuta egun anzitasunari arreta ematea dela Espainiako hezkuntza sistemaren zutabe-etako bat, eta ikusirik Nafarroako Eskola Kontseiluak sortu zenetik gaur arte bereganatu duen esperientzia, egokitze eta beharrezkotzat jotzen da desgaitasunaren ondorioz arreta berezia behar duten ikasleak ordezkatzeko dituen kide bati tokia egitea organo horren barruan.

Bestetik, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legeak, aipatutako 7.1 artikuluan, xedatzen du, halaber, Eskola Kontseiluari besteak beste gai hauei buruzko iritzia eskatuko zaiola, derrigorrez: "b) Ikastetxeak sortu, aldatu, kendu eta geografikoki banatzeko plangintza orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak. c) Ikastetxeetako ezauga-

rriei, plantillei eta hezkuntza ekipamenduei buruzko arau orokorrak. d) Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutako finantzaziorako irizpide orokorrak.” Eta 7.2 artikuluan, berriz: “Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusiak, bere aldetik, honako gaiei buruzko proposamen eta txostenak igorri ahalko dizkio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari: a) Hezkuntza sistemaren ebaluazioa. b) Ikastetxeen araubidea. c) Ikastetxe publiko eta pribatuetan legezko arauak betetzea. d) Irakasleen prestakuntza eta hobekuntza. e) Giza baliabideen arloko politika.”

Kontuan hartuta eginkizun eta eskumen horiek ageriko eragina dutela ikastetxe publikoetako eta ikastetxe pribatu itundu eta diruz lagundutako zuzendaritzari dagozkion eginkizunetan, bidezkoztat jotzen da bi sektoreetako zuzendariek ordezkari izatea Nafarroako Eskola Kontseiluan.

Artikulu bakarra. Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzea.

Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua edukia hauxe izanen da aurrerantzean:

“4. artikulua.

1. Hezkuntza Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia kide hauek osatuko dute:

a) Kontseiluburua, Nafarroako Gobernuak izendatuko duena.

b) Nafarroan dauden maila ez-unibertsitarioko ikastetxe publiko eta pribatuetako irakasleen bost ordezkari, honela banatuta:

Ikastetxe publikoen hiru ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako irakasleen Langileen Batzordean ordezkari gehien duten hiru sindikatuetatik bana, beraiek aukeratu beharrekoak.

Ikastetxe pribatuen bi ordezkari, Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza pribatuen ordezkari handiena duten bi sindikatuetatik bana, nork berea aukeratu.

c) Bost ordezkari, ikasleen guraso elkartearen federazioek proposatu eta bakoitzak duen bazkide kopuruaren arabera aukeratuak.

d) Nafarroako maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publiko eta pribatuetako ikasleen bi ordezkari, ikasleen elkarteek edo elkartearen federazioek

proposatu eta bakoitzak duen ordezkariaren arabera aukeratuak.

e) Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren eta enpresaburuen elkartearen hiru ordezkari, elkartearen edo federazioaren proposamenari jarraikiz bakoitzaren ordezkariaren arabera aukeratuak, Nafarroako Foru Komunitatean dituzten ikastetxeetan dagoen ikasle kopuruaren arabera.

f) Hezkuntza administrazioaren bost ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak proposatuak.

g) Nafarroako toki entitateen bi ordezkari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposatuak.

h) Irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonen artean aukeraturiko ordezkari bat, Hezkuntzako kontseilariaren proposamenari jarraikiz izendatua.

i) Unibertsitateetako bi ordezkari, bata publiko eta bestea pribatukoa, kasuan kasuko gobernu organoaren proposamenari jarraikiz aukeratuak.

j) Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen bi kide, Batzordeak berak aukeratuak.

k) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen enpresaburuen elkarteak proposaturiko ordezkari bat.

l) Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handiena duen sindikatuak proposaturiko ordezkari bat.

m) Nafarroako ikastetxeetako administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, Administrazioa-Erroko Batzordeak proposatua.

n) Nafarroako Foru Komunitateko desgaitasun motak bildu, eta ordezkari handiena duen erakundearen ordezkari bat.

ñ) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako zuzendarien elkarteek proposatuak.

o) Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkari bat, ikastetxe horietako enpresaburuen elkarteek proposatua.

p) Eskola Kontseiluko edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko idazkari lanak Nafarroako Gobernuak horretarako izendatutako pertsonak beteko ditu. Bileretan parte hartuko du, hizpidearekin baina botorik gabe, eta horien akta eginen du.

2. Hezkuntza Departamentuak Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren esku

utziko du bere eginkizunak egoki burutzeko behar adinako giza baliabide nahiz baliabide materialak.

3. Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak bere eginkizunak modu egokian aurrera eramateko beharrezkotzat jotzen dituen teknikari edo aholku-emaileen laguntza eska dezake. Teknikari eta aholku-emaile horiek hizpidea izanen dute, baina botorik ez.

4. Eskola Kontseiluko kideek uneoro eskatu ahalko dizkiote Hezkuntza Departamentuari beren eginkizunak egoki betetzeko behar dituzten informazio eta agiriak, kontseiluko buruaren bitartez.”

Xedapen iragankor bakarra. Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak sartzea.

Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxeetako zuzendarien ordezkariak izendatu bitarte, kontseiluan izaera horrekin sartuko dira egun irakaskuntzaren arloan izen handiko pertsonak diren aldetik kide diren zuzendariak.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan har ditzan Biurdana institutua handitzearen aurka irakasleen txostenean agertzen diren puntuak.

NAFARROA BAI ETA BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kontuan har ditzan Biurdana institutua handitzearen aurka irakasleen txostenean agertzen diren puntuak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

2011ko azaroan, parlamentu-bilkura batean Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunari galdetu zitzaion ea zer konponbide emanen zitzaion Biurdana BHIri atxikitako ikastetxeetako D ereduko haur eta lehen hezkuntzako matrikulazio-datuetatik heldu den arazoari; izan ere, ikastetxe horrek gaur egun ez dauka lekurik ikasle horiek hartzeko.

Kontseilariaren erantzuna ezin laburragoa izan zen: "Ez dut arazorik ikusten," eta, edozein modutan ere, 2012-2013 ikasturteko aurrematrikulazioko

azken datuen ostean proposatuko litzateke konponbidea.

2012ko martxoan, Biurdana BHIri atxikitako haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako –Sanduzelai, Patxi Larrainzar eta Orkoi– guraso elkartearen ordezkariak egindako txosten bat eman ziguten Nafarroako Parlamentuko parlamentu-taldeen ordezkariari, zeinetan espazio-arazoak berresten baitira, azken matrikulazioak jasotzen dituzten datuen bidez, Iribas jaunak eskatu zuen bezala.

Guraso elkartearen ordezkariak horrek agerraldia egin zuen 2012ko apirilaren 25ean Hezkuntza Batzordearen lan bilera batean, gaia jorratze aldera NaBai, Bildu, I-E eta PSNren parlamentu-taldeen gonbidatuta. Lan bilera horretan UPNk adierazi zuen mahai gainean jarriko den konponbidea izanen dela Biurdana BHI handitzea.

Hezkuntza Departamentuak Biurdana ikastetxera jo zuen handitzearen nondik norakoak jakinarazteko; halatan, besterik gabe, bi solairuko ikasgelategi bat eraikiko litzateke: solairu bakoitzak bost gela arrunt edukiko litzateke, eta eraikinak bikoizketetarako bi gela eta bainugela batzuk edukiko litzateke.

Planteamendu hori ikusita, Biurdana BHIko irakasleen klaustroak beste txosten bat prestatu zuen, handitzea egitearen aurkakoa, handitzea ez egiteko arrazoi tekniko, pedagogiko eta operatibotetan oinarrituta. Txosten hori 2012ko maiatzaren 10ean aurkeztu zuten Hezkuntza Departamentuan. Halaber, klaustroak bat egin zuen guraso elkartearen ordezkariaren eskariarekin, Iruñeko ipar-ekialdean bigarren hezkuntzako ikastetxe berri bat eraiki dadin.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontuan har ditzan Biurdana ikastetxea handitzearen aurka eta ikastetxeak egun dituen gabeziei buruz irakasleen txostenean azaldutako puntuak, halako moduan non behin betiko proiektuan jasoko baita gabezia horientzako konponbidea, behin betiko proiektua zein ere den.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du proiektu bat egin dezan, 2013-

2014 ikasterterako bigarren hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitze aldera Iruñeko ipar-ekialderako, masifikazio arazoak arintzeko eta handitze-proposamenak ezinbestean ekarriko duen ikasle-pilaketa ekiditeko.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal eta Aitziber Sarasola Jaca

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da organo judizialekin adostu dezan zorra bide judizialek erreklamatzeko prozeduraren hasiera, etxetik bota aurretikoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita organo judizialekin adostu dezan zorra bide judizialek erreklamatzeko prozeduraren hasiera, etxetik bota aurretikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Sustapen eta Etxebizitza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Sustapen eta Etxebizitza Departamentuak igorritako informaziotik ondorioztatzen da departamentuak ez dakiela nola eragiten dion Nafarroan etxebizitza babestuen ereduari etxebizitzaren enkante eta utzarazpen egoerak. Departamentuak

dioenez, auzitegiek ez dituztenez utzarazpen prozesuak alde aurretik jakinarazten, ezin da eduki daturik, jakin ahal izate aldera babes ofizialeko etxebizitzaren zer ehunekorri eragiten dieten utzarazpenek.

Orobat dio Departamentuak, horren ondorioz, ez duela jarduketarik egiten gisa horretako prozedura batean murgilduta dauden babes ofizialeko etxebizitzak titulartasun publikorako erreskatatuak izan daitezen, Departamentua enkantean aurkeztuaren bidez.

Gauzak horrela, parlamentu-talde honek ondoko erabaki-proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du utzarazpenen arduratzen diren esparru judizialekin adostu dezan, utzarazpenaren aurretik zorra bide judizialek erreklamatzeko prozedura bat abiarazi izana formalki jakinaraz daki on Nafarroako Gobernuak Sustapen eta Etxebizitza Departamentuari.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernua Nasuvinsa enpresaren bidez bertaratu dadin utzarazpenaren aurreko enkantearen prozeduran dauden babes ofizialeko etxebizitzaren kasuetan, etxebizitzaren jabetza berreskuratze aldera, hartzaileak ordaindu gabeko zor hipotekarioa baino prezio txikiagoa inoiz ez ordaintzeko irizpidea aplikatuta.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da euskara erabil dezan, gaztelaniarekin batera, Nafarroako Museoko testu idatzietan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita euskara erabil dezan, gaztelaniarekin batera, Nafarroako Museoko testu idatzietan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Museoa, bere webgunearen hasierako orrian ageri denez, Nafarroako Gobernuaren

zerbitzu publiko bat da, eta haren helburu nagusietako bat da pertsona mota ororengana hurbiltzea Foru Komunitatearen kultur ondarea eta historia. Horretarako, ondare horren lekuko diren ondasunak zaintzeaz, handitzeaz eta hedatzeaz gain, ondasun horiek katalogatzeko, zaharberritzeko eta ikertzeko ardura du. Bilduma modu argi eta ordenatuan erakusteak xede du artelanak eta artistak sustatzea eta ezagutaraztea, hezkuntzarako eta aisiarako balio dezan. Erakusketako piezek Nafarroako ondare aberats eta bereziaren lagin interesgarri bat osatzen dute. Bitxia bada ere, helburua ondarea hurbilaztea dela onartzen den arren, afixetan eta testuetan hizkuntza bakarra erabiltzen da: gaztelania. Eta ahaztu egiten da gure ondarearen parte bat: euskara. Gure ustez, Nafarroako hizkuntza-errealitatea ezkutatzeko ahalegina dago hor. Hori dela-eta, kontuan hartuta Museoak Nafarroako herritar guztiei ematen diela zerbitzua, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du gaztelaniarekin batera euskara erabil dezan Nafarroako Museoaren testu idatzietan, neurri, kontraste eta zabalera berarekin.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen dira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan eta testu inprimatuetan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen baitira, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten barneko errotulazioan eta testu inprimatuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Parlamentuak hainbat ekimen onetsi ditu, Administrazioak eta haren mendeko erakundeek sustatutako jarduketetan euskararen erabilera progresiboa bultzatzeko. Bereziki garrantzitsuak dira, gure ustez, Baluarte-Biltzar jauregi eta auditorioarekin zerikusia dutenak, kultur nahiz merkataritza ekitaldi mota oro hartzeko ahalmena duen gune handi bat delako, Nafarroako herritar guztiei zerbitzu ematen diena. Ekimen horien artean, 2010eko azaroaren 26an onetsitako erabakia nabarmendu nahi dugu. Haren bidez, Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen ziren, euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrera egin zezaten barneko errotulazioan, testu inprimatuetan eta webgunean,

era horretan euskara eguneroko tresna izan dadin, eta ez salbuespena, bere ohiko jardunean. Barneko errotulazioari dagokionez behintzat ez da aurrerabide handirik sumatu.

Gure ustez, jarrera hori ilogikoa da kulturaren ikuspuntutik, bai eta errespetugabea ere, Nafarroako herritarren hizkuntza-eskubideei dagokienez.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu eta Baluarte Fundazioa premiatzen ditu:

1. Euskararen presentziari eta garapenari dagokienez, aurrerapausoak eman ditzaten eraikinarren barneko errotulazioan eta testu inprimatuetan, era horretan euskara eguneroko tresna izan dadin, eta ez salbuespena, bere ohiko jardunean.

2. Aurrerapausoak eman ditzaten, euskararen ahozko erabilerari dagokionez, Biltzar Jauregiko informazioguneetan jendeari arreta zuzena nahiz telefono bidezkoa ematean, bai eta kanpoko txarteldegietan, bisita gidatuetan eta auditorioko megafonia bidezko informazioa ematean ere.

3. Aurrerapausoak eman ditzaten Baluarte-Biltzar jauregi eta auditorioko programazioetan euskararen kultur adierazpideak sartzeari dagokienez; izan ere euskara Nafarroako berezko hizkuntza eta kultur ondare ez materialaren osagai garrantzitsu bat da.

4. Aurrera egin dezaten Baluarte Fundazioari nahiz bilera eta kongresuetarako aretoak erabiltzea eskatu duten entitateei aldibereko itzulpena, testuen itzulpena eta elebitasunerako bestelako erraztasun batzuk eskaintzeari dagokienez, baldin eta halakorik eskatzen badute, Nafarroako hizkuntzen erabilera normala eta aldiberekoa ziurtatze aldera.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa e Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aintzat har ditzan landa eremuko eskolak mantentzeari buruzko zenbait puntu.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita aintzat har ditzan landa eremuko eskolak mantentzeari buruzko zenbait puntu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Azken 40 urteotan landa eremuko eskolak itxi dira bata bestearen ondotik, horrek esan nahi duen guztiarekin. Eskolarik gabeko herri bat bere bizitza galtzen doan herri bat da; haurrek ematen duten bizitza, hain zuzen ere. Landa eremuko eskola publikoek herrietako bizitza mantentzen laguntzen dute, hezkuntza erkidegoak lan-proiektuetan parte hartzea areagotzen dute, ikasleak teknologia berrietan prestatzen dituzte, irakaskuntza pertsonalizatua eta kalitatezkoa izan dadin laguntzen dute, talde-lana sustatzen dute, ikasleak kritiko eta gogoetazale egiten dituzte bizitzak aurrean jartzen dizkien erronkei aurre egiteko, balioetan hezten laguntzen dute; laburbilduz, ikasleak eguneroko bizitzarako gaitzen dituzte. Familiak mugitu beharra baldin badute eskolara joateko, zailagoa da familiek eskolan parte hartzea.

Nafarroan landa eremuko 70 eskola baino gehiago daude, 11 eremutan banatuta. Iaz lehendabiziko jardunaldiak egin ziren, hiru helburu nagusirekin: Nafarroako landa eremuko eskolek abiarazitako lana ezagutzera ematea; landa ere-

muko eskolen arteko lankidetzak eta elkarren arteko ezagutza bultzatzea; eta, azkenik, eskola horien lan-dinamikak ezagutaraztea, gizarteak horien berri izan dezan, irakasle eta hezkuntza-eragile asko eta askorentzat erabat arrotzak direlako.

Halatan, eskola horien errealtatearen eta eskarien berri emateko kanpaina bat egin da, eta horren kariatara eskatu digute parlamentu-taldeoi bat egin dezagun eremu horietako familiek, familia-elkarteek, sindikatuak eta NIZEK prestatutako ondoko dekalogoarekin:

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du kontuan har ditzan ondoko puntuak:

1. Landa eremuko eskolen bestelakotasuna: eskola horiek beren bereizgarrien arabera onartzea eta tratatzea administrazioaren barruan, eta gune berriak sortzea eskola horien ezaugarriak kontuan hartuta.

2. Eskola-irekitzeak eta -berrirekitzeak: gutxieneko kopuru bat ezarri behar da, eta kopuru hori gaintuz gero eskola ireki beharko litzateke, herriak hala eskatuz gero.

3. Ikuspegi ez ekonomizista, zerbitzu publikoa: herriak bizirik mantentze aldera, zerbitzu publiko gisa hartu behar da hezkuntza: etekin ekonomiko-en gainetik dago eta behar diren inbertsioak egin behar dira bertan.

4. Diskriminazio positiboko neurriak: berezitasunak berezitasun, laguntza berezia eskaini behar zaio, beharrezkoak diren proiektu berekiak egin ahal izateko.

5. Hizkuntza-aniztasunarekiko errespetua. Indarreko zonifikazio-murrizketek gain, herriko eskolan eskolatzeko aukera edukitzea.

6. Kultur ondarea: Europako gainontzeko herrialdeetan landa eremuko eskolei ematen ari zaien tratamenduaren eta joeraren araberrako neurriak hartzea.

7. Landa eremuko irakasleen lanbide-karrerari eta lan baldintzei laguntzea: erraztasunak eta pizgarriak ematea eremu horietako irakasleei, halako moduan non lanpostuak erakargarriagoak izanen baitira eta egonkortasuna ziurtatuko baita. Plantillak taxutzen direnean ez da ikasle-kopurua zen-

batzera mugatu behar, landa eremuko eskolen berezitasunak kontuan hartu gabe.

8. Prestakuntza: berariazko prestakuntza unibertsitatean. Eremu bakoitzeko ILZn prestakuntza ematea landa eremuko eskoletan jarduten diren irakasleei.

9. Landa eremuko eskolen bulegoa: ezinbestekoa da eskola horien beharrianak eta berezitasunak artatuko dituen organo eraginkor bat egotea.

10. Aipatutako beharrianak aseko dituen Eskola Mapa bat: egungo zonifikazio burugabea amaiaraztea eta herrien beharrianen araberako bat egitea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 17an.

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erretira dezan Nafarroako 0-3 hezkuntza-zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeko dekretu proiektua.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erretira dezan Nafarroako 0-3 hezkuntza-zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzeko dekretu proiektua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Parlamentu-talde sinatzaileek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Demokraziaren etapa iristearekin, eta aurreko esperientzia pedagogiko batzuk hartuta, zenbait haur eskola sortzen hasi ziren –baita gure erkidegoan ere–, saiatzeko zirenak alde batera uzten

Francoren garaiko haur txikientzako zentro batzuek zeukaten laguntza-izaera soila.

1990eko LOGSE legea aurrerapen kontzeptual bat izan zen haur hezkuntzarako (0-6 urte), zeren eta lege horrek lehenengo aldiz aitortu baitzuen etapa hau hezkuntza sistemaren lehenengo urratsa zela. Dena den, uste dugu erabakimena eta aurreikuspen ekonomiko egokia falta izan zirela paperean idatzi zena errealitatera eramateko. Bestalde, batez ere gutxieneko betekizunak aplikatzeko aldi luze-luzeak (behin eta berriz luzatu baita), berarekin ekarri zuen, askotan, zentroek ez betetzea legean ezarritakoa eta jada bazter utzita ziruditen laguntza-ereduak ugaltzea, legea bera eta, batez ere, haurren eskubideak betetzen ez zituztenak.

LOGSE legea egoki aplikatzen eta ebaluatzen amaitu baino lehen, 2005ean, LOCE legea agertu zen. Lege horrek Haur Hezkuntza osoa identifikatzen zuen filosofia hautsi zuen: haur guztiek hezkuntza duinerako eskubidea izatea, jaiotzearen unetik.

LOE legeak (2006ko maiatzaren 4ko EAOn argitaratua), berriz, gauzak bere tokian jarri zituen, baina ez guztiz, planteamendu kontserbadoreen alde eginiko kontzesioen ondorioz.

Egia da haur hezkuntzaren etapa bakarraren kontzeptua –0-6 urte– berreskuratu zuela eta etapa osorako printzipio orokor berak ezarri zituela, 12. artikulua bitartez, nahiz eta legean ausardiari ageri ez, zeren eta etapa hau bi ziklo-

tan banatu baitzen, berriz ere, LOGSEren hutsetako bat berriz eginez.

2007ko maiatzaren 4an, NAOn, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua argitaratu zen. Foru dekretu horrek Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen du eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen ditu.

Hain irregularra den eta hain gutxi zainduta dagoen sektore bat erregulatzeko edozein saiakerara goraiatzekoa da, eta Nafarroako Gobernuak bide horretan egin zuen ahalegina eskertu zen. Alabaina, uste dugu egindako urrats hori ez dela nahikoa izan.

Aspalditik, gizarteko zenbait sektoretatik (profesionalak, familiak, kultur mugimenduak eta abar), hezkuntza ziklo hau arautuko zuen dekretu baten zain geunden, ziklo berean erakunde eta zerbitzu ugari baitaude batera (haur eskolak, haurtzaindegia, etxe lagunak...), horietako askotan Administrazio publikoak inolako kontrolik eduki gabe. Kontrol ez horrek eragina du instalazioetan, langileen titulazioetan, hezitzaile bakoitzeko haur kopuruan, ordezte planetan, hezkuntza proiektuaren egiaztaetan eta abar.

0-3 urteko hezkuntza zikloaren aldeko plataformakook, funtsean, bi gauza espero genituen: alde batetik, hiru urtez beheitiko haurrak eskolatzen dituzten erakunde guztiek betetzea Hezkuntza Departamentuak finkaturiko gutxieneko baldintza batzuk; eta, bestetik, baldintza horiek duinak izatea haurtzaroaren ahalbide guztien garapena segurtatzeko.

Bi gauza horietako bakarra ere ez da betetzen dekretu horretan (funtsean, ezartzen duen araupeztzak ez duelako eraginik hiru urtetik beherakoei irekitako zerbitzu guztietan, eta erregulatzen direnetan, ordea, gehiegizko ratioak ezartzen dira, esate baterako, eta laxoegia da zentroen baldintza espazialei dagokienez).

Eta dekretu hori praktikara eraman gabe ere, zeren eta haren aplikazio epea 2012ko abuztuan amaitzen baita, beste dekretu bat planteatzen da, zeinak, oso modu nabarmenean, atzerapausoa ematen baitu aurrekoaren aldean, eta haur eskolen kalitatearen kontra jotzen baitu.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erretira dezan Nafarroako 0-3 urteko hezkuntza zikloari buruzko martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duen dekretu proiektua.

2. Nafarroako Gobernua premiatzen da bi urteko aparteko aldi bat eman diezaien 28/2007 Foru Dekretuan exijitzen diren baldintzak bete nahi dituztenei.

3. Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte arteko haurrak hartzen dituzten erakunde guztien zerrenda bat sor dezan, eta egiazta dezan haur horiek nolako eskolatze baldintzatan dauden: langileen titulazioak, ratioak, ordezte planak, espazio-baldintzak (gelen egurastea, komun baldintzak, kanpoko patioen eta patio estalien kokalekua eta erabilera, haur bakoitzeko metro koadroen kopurua eta abar).

4. Legeak eginen dira 0 eta 3 urte arteko haurrak eskolatuta dauden gisa guztietako zerbitzu orok (haur eskolak, haurtzaindegia, jolas-haurtzaindegia, etxe lagunak, akademiak, familia-espazioak...), salbuespenik gabe, nahitaez baldintza duin batzuk bete ditza: langileen titulazio egokiak; Europar Batzordeko Haurren Arretarako sareak Haur Zerbitzuen Kalitate Helburuen bitartez ezarritako gomendioen araberrako ratioak; ordezte planak, ratio horiek beti segurtatzeko; espazio baldintzak (gelen egurastea, komun baldintzak, haien kokapen bisuala, kanpoko patioen eta patio estalien erabilera, haur bakoitzeko metro koadroen kopurua eta abar).

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak GIBaren transmisioaren prebentzioarekiko konpromisoa agertzen du.

BILDU-NAFARROA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak GIBaren transmisioaren prebentzioarekiko konpromisoa agertzen baitu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Ospitaleguneko laborategien bateratzeak berarekin ekarriko du analisiak egiteko prozedurak estandarizatzea, halako moduz non proba-eskarian osasun txartelaren zenbakia nahiz beren benetako identitatea adierazten ez duten pertsonen dagozkien probak mantsoago egiten diren eta garestiagoak izanen diren, Osasun Departamentuak adierazitakoaren arabera.

Testuinguru horretan, urtarriletik, dirudienez, eskatzaile guztiak identifikatzeko eta haiei osasun txartela exijitzeko prozedura aplikatzen ari da, baita GIBa detektatzeko proba modu anonimoan egiteko bolante bat lortze aldera "Sare" eta "Hiesaren aurkako Batzordea" gobernuz kanpoko erakundeetara jotzen duten pertsonen kasuan ere.

GIBa, gaur egun, tabu gaia da gure gizartean, eta oraindik ere infekzioa daukan pertsona estigmatizatu eta baztertzeko da.

Gobernuz kanpoko erakunde horiek adierazi dutenaren arabera, erabaki horrek berarekin ekar dezake Nafarroako infekzio kasuen egoeran atzerapausoak ematea, zeren eta ezkutuko epidemiarik aurkako borrokaren kaltegarri izanen baita; izan ere, anonimotasuna segurtatzen ez bada, zailago suertatuko da argitara atzeratzea oraindik ere antzeman ez diren kasuak, eta pertsona horiek balizko transmisore bihurtuko dira.

Egia da oraindik ere aukera egonen dela listuaren proba modu anonimoan egiteko GKE horietan, zeren eta prozedura horrek ez baitu laborategi baten beharrik. Dena den, proba horrek fidagarritasun txikiagoa dauka, eta 11 euroko kostua dauka, hain zuzen ere GKEek beren gain hartzen dutena. GKE horiek jada salatu dute gisa horretako probak areagotzen badira, gastu handiagoa izanen dutela, eta agian ezin izanen diotela aurre egin.

Azkenik, oso kezkatuta gaude baldintza berri horiek eragin zuzena izan dezaketelako egoera administratibo irregularrean egon eta 2012ko apirilaren 30etik aurrera errolatzen diren pertsonengan, zeren eta ez baitute osasun txartelirik edukiko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa azaltzen du GIBaren transmisioaren prebentzioa dela eta, eta aitortzen du arlo honetan lan egiten duten GKEek "Sare" eta "Hiesaren aurkako Batzordea" kasu-zeregina garrantzitsua dutela.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, esparru honetan lan egiten duten eragileek aldarrikatzen duten moduan, GIBa detektatzeko probak modu anonimoan eskatzeko aukera berma dezan, eta ez dezan exijitu osasun txartela aurkeztu behar izatea, halako moduz non edozein pertsonak, bere egoera administratibo eta pertsonala edozein dela ere, aukera izanen baitu zerbitzu horretaz doan eta konfidentzialtasunez baliatuzeko.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez Erro eta Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue Bideko seinalizazioa hobetu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroan Donejakue Bideko seinalizazioa hobetzeari buruzko mozio hua aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

Donejakue Bideak milaka erromes erakartzen ditu urtero Nafarroara. Foru Komunitatea zenbait ibilbidetatik zeharkatzen duen erlijio-, kultura- eta gizarte-ibilbide hori egiten dute: Frantziako Bidea, Luzaide-Orreagan eta Zangozan hasita, eta Baztan eta Ebro ibarretako bideak.

Donejakue Bidea da gaur egun Foru Komunitateak eskaintzen dituen osagai bereizgarrietako bat. Ibilbideak, zeinak Erdi Aroan baitu jatorria,

orobat balio du Nafarroaren kultura-, ingurumen-, erlijio eta arte-altxorren parte handi bat erakusteko.

Azken urteotan etorritako erromes-kopuruen eraginez, erakunde publikoek, entitate pribatuek eta boluntarioek parte-hartze aktiboa izan dute bidea kontserbatu, zaindu eta ezagutzera ematearen zereginetan.

Hedabideek aldiro ematen dute bidaiariek izandako zailtasun-egoeren berri, zeinek, zenbait kasutan, lotura izan baitezakete Donejakue Bideak zenbait lekutan duen egoerarekin eta seinalizazioarekin.

Egoera horiek bereziki errepikatu ohi dira Donejakue Bidearen Nafarroako lehen etapan, Luzaide eta Orreaga artean. Bidegune hori berezia da, orografia zailak nekezagoa izatea eragiten duelako. Basoak zeharkatu behar dira, eta horri gehitu behar zaio Pirinioetako klima muturrekoa eta aldakorra dela.

Espainiako eta Frantziako larrialdi zerbitzuek askotan jardun behar izan dute Luzaide eta Orreaga bitartean, galdutako erromesen bila, eta zenbait kasutan heriotzak gertatu dira.

Beraz, erromesentzat mesedegarria izanen litzateke Donejakue Bidea egokiro seinaleztatzea. Luzaide eta Orreaga bitarteko bidegunea, berriz, bereziki hobetu beharko litzateke.

Horregatik guztiagatik, Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Donejakue Bideko seinalizazioa azter dezan, bereziki Luzaide eta Orreaga bitarteko bidegunean, Bideko lehen bideguneko mugarrak sendotze aldera.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ziurta dezan zerikusia duten eragile guztien parte-hartzea osasun zerbitzuaren eredu aldaketan.

NAFARROA BAI, BILDU-NAFARROA ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita ziurta dezan zerikusia duten eragile guztien parte-hartzea osasun zerbitzuaren eredu aldaketan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Osasun Departamentua osasun-laguntzaren ereduaren aldaketa ari da lantzen 2012ko martxotik hasita. Osasuneko kontseilari Marta Vera andreak azaldu zigunez, bilera ugari egin dituzte arloko zenbait eragilerekin, egoeraren diagnostikoa egiteko eta hobekuntza-ildo estrategikoak ezartzeko.

Iragan maiatzaren 22an zehaztu zigunez, lantalde berriak eratuko dira laster, ildo estrategiko horiek ezartzeko metodologia zehazte aldera.

Parlamentuko lan bileretan parte hartu duten bost eragile eta sindikatuak –Sendagileen Sindikatura, SAE, SATSE, Oinarrizko Osasun-laguntzako eta Familia Medikuntzako Elkarteak eta SEMERGEN– bat etorri dira esatean haien ustez Departamentuak oso informazio eta parte hartzeko aukera gutxi eman diela.

Bestalde, denak etorri dira bat kritikatzean Departamentuak planteatzen dituen neurri zehatz

gutxietako bat: guardia lokalizatuak ezartzea, bertan egon beharreko gardien ordez, Nafarroako zenbait eremutan. Izan ere, neurri horrek atzera egitea dakar osasun arloko profesionalen lan-baldintzei dagokienez, areagotu egin dezake profesional horiek eremu horiekin fidelizatzea, eta zerbitzuaren kalitatea jaitea ere ekar dezake, Nafarroako herritarren artean ezberdintasunak eragin ditzakeelako larrialdiak artatzeari dagokienez.

Arloko eragileen ekarpenak jasotze aldera une honetan abiatzen ari den prozesu berri horren aurrean, gure ustez behar-beharrezkoa da Osasun Departamentuak konpromisoa har dezan proposamen guztiak mahai gainean jartzeko, ekarpen guztiak kontuan hartzeko eta ereduaren aldaketa eta lan baldintzak kasuko foroetan negoziatzeko, horretarako denboran mugarik jarri gabe, adostasun ahalik eta handiena lortzea helburu.

Hori dela-eta, gure parlamentu-taldeen ondoko erabaki proposamena aurkeztu dute:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ziurta dezan osasun-laguntzaren ereduaren aldaketan zeresana duten eragile guztiek egiaz parte hartzea. Horretarako, konpromisoa hartuko du proposamen guztiak mahai gainean jartzeko, ekarpen guztiak kontuan hartzeko eta ildo nagusiak eta lan baldintzak kasuko foroetan negoziatzeko, horretarako denboran mugarik jarri gabe, adostasun ahalik eta handiena lortzea helburu.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ekitatea ziurta diezaien Nafarroako herritar guztiei, larrialdiak artatzeari dagokionez, halako moduan non bazter utziko baitu gure lurraldeko zenbait eremutan guardia lokalizatuak ezartzeko asmoa, larrialdietako laguntzaren kalitatea jaitea eragiten duelako eta beste eragozpen bat gehiago dakarrelako osasun arloko profesionalak eremu horiekin fidelizatzeari begira.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Foru parlamentariak: Nekane Pérez Irazabal, Aitziber Sarasola Jaca eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten.

SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Izquierda-Ezkerra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen die Defentsa Ministerioari eta Errege Bardeako Komunitateari Bardeako tiro-eremua itxi dezaten."

Legebiltzarreko Sustapen eta Etxebizitza Batzordeak, 2012ko maiatzaren 29an egindako

bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko maiatzaren 11ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, Kooperatiben Nazioarteko Urteari babesa ematekoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nazio Batuek Kooperatiben Nazioarteko Urte deklaratu dute 2012a. Hartara, Nafarroako Parlamentuak ondokoa ADIERAZTEN DU:

Bat. Erakunde honek bere babesa ematen dio Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren 64/136 Ebazpenari, zeinaren bidez Kooperatiben Nazioarteko Urte deklaratzeko baita 2012a eta ezartzen baita kooperatibak garatzeko ingurune egoki bat sortu behar dela nazioartean.

Bi. Legebiltzar honek enpresa-formula horren oinarritzko ezaugarriak azpimarratu nahi ditu: Gizarte Ekonomiaren sektorean sartuta dago, enplegua sortzeko eta mantentzeko ahalmena erakutsi du, bai eta aberastasun partekatua sortzeko ere, ekitatez eta arduraz betiere, nahiz eta azken urteotan bizi dugun egoera ekonomikoa zaila izan. Kooperatibak arautzen dituzten printzipioei esker –besteak beste, bazkideen kontrol demokratikoa, bazkideen parte-hartze ekonomikoa edo ingurunearekiko konpromisoa–, enpresa-formula hori enplegua sortzeko eta mantentzeko bitarteko bat da. Gobernu zentralaren iturriek ere hori frogatzen dute, berretsi egiten baitute 2010ean eta 2011n 30.380 pertsonak baino gehia-

gok sortu zutela beren lanpostu propioa, 3.760 kooperatiba berri eratuta.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentua jabetuta dago enpresagintza modu horren garrantziaz, gai baita ekonomia- eta finantza-egonkortasuna emateko, enplegua sortzen eta mantentzen laguntzeko eta gizarte-ongizatea eta -kohesioa lortzeko; horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak bultzatzen lagundu nahi du Nazio Batuen Biltzarrak Kooperatiben Nazioarteko Urtea deklaratu izana, bai eta horren jarraipena egiten ere. Halaber, Gobernu premiatzen du era guztietako neurriak ezar ditzan Espainian kooperatibismoa haztearen eta garatzearen alde, bai eta entitate horien ordezkartza instituzionala hobetzearen alde ere.

Laugarrena. Gure zoriona eta aintzatespena helarazi nahi dizkiegu, enplegua sortze eta mantentze aldera eta kapital soziala sortze aldera egiten duen lanarengatik, kooperatiben interesak beren alderdi guztietan ordezkartzen dituzten entitate guztiei, bai eta CEPESi ere, Gizarte Ekonomia defendatzen eta ordezkartzen duen entitatea den aldetik, zeinaren bizkarrezurra Espainiako kooperatibek osatzen baitute."

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Kutzari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuako lehendakari Barcina andreak Foru Araubideko Batzordean ahoz erantzun dezan:

Herritarrak zur eta lur daude oraindik, ikusita Nafarroako Kutzak azken bi urteotan egin duen bidea, zeina Caixabanken bukatu baita. Ebatzi gabe dago oraindik ere informazio-eskea: zer gertatu da?, nola iritsi gara honaino?

Halatan:

- Zure datuen arabera, zein zen Nafarroako Kutzaren kontabilitate-balioa 2009ko abenduaren 31n? Caixabanken onetsitako azken balantzearekin bat, zein da Nafarroako Kutzak Caixabanken dituen akzioen kontabilitate-balioa?

- Ba al duzu bi data horien artean kontabilitate-balioa jaitsi izanaren arrazoiei buruzko informazio xehakaturik? Zehazki, ba al duzu informazio xehakaturik, zehaztu ahal izate aldera narriaduraren zer parte datorren Banca Cívica osatzen zuten aurrezki kutxetako bakoitza jarduten zen eremu geografiko bakoitzetik?

- Halakorik ez baduzu, zure ustez komenigarria litzateke informazio hori edukitzea? Eska al zenezake?

- Informazio hori baldin baduzu, informazioa parlamentu-taldeekin partekatzearen aldekoa zara ala, aitzitik, informazioa publikoa ez egitea egokigoa dela uste duzu?

- Informazioa publikoa egitea planteatzen baldin bada, noiz eta nola eginen litzateke?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko

Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari.

Une honetan ari da Hezkuntza Departamentua 2012-2013 ikasturterako irakasle plantillak aitor-tzen ikastetxeetan.

Kontuan izanik irakasleen aurrez aurreko jardunak handituko direla eta ratioak ere bai hainbat ikastaldetan, ondoko galderak erantzutea nahiko genuke:

1. Zenbat behin behineko lanpostu gutxiago eskainiko da 2011-2012an baino?

2. Zenbat irakasle hasi ziren 2011-2012 ikasturtean oro har hezkuntza publikoan?

3. Zenbat taldetan haziko dira ratioak? Non izanen dira?

4. Zein izan dira ratioa handitzeko irizpideak lekuan leku 2012-2013 ikasturterako?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruzkoa.

AITZIBER SARASOLA JACA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitziber Sarasola Jaca andreak aurkeztutako galdera, Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aitziber Sarasola Jaca, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari Mendillorri eta Antsoainen burutzen ari diren handitze lanak eta institutu berriaren obrak direla eta:

1. Mendillorri DBHI handitzea burutzen ari da. Handitze hau epeka eginen da. Izan ere, aurrean bada estreinatua dute handitze zati bat. Zenbat diru kosta da handitze hori eta zein instalazio ditu (gela arruntak, bikoizketarakoak, patioa, bulegoak eta halakoak ...)? Zenbat denbora kosta zaie orain artekoa eraikitzea?

2. Mendillorriko DBHI handitzeko bigarren fase-

rako zenbat diru dago aurreikusita eta zein instalazio gehiago izanen ditu?

3. Antsoainen zenbat lerrokoa izanen da institutua? Zenbat fasetan eraikiko da? Fase bakoitza zenbat kostako da eta zein instalazio izanen ditu?

4. Zenbat kostako da osotara Antsoaingo institutua?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: Aitziber Sarasola Jaca

Galdera, Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak zer asmo du Aralar mendiko Guardetxeari dagokionez?

- Kasua bada, zertan dautza eginen dituen jarduketak?

- Aurrekontuko zer kontusailen kargura eginen ditu, egiten baldin baditu, jarduketa horiek?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Allozko urtegian traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Allozko urtegian traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako Gobernuak ba al du Allozko urtegian traineruen estropada bat egiteko kirol ekimenaren berri?

- Zein izan da Gobernuaren parte-hartzea estropadaren antolaketan? Zein izan da (edo izan da) horretara bideratutako aurrekontua?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

rrreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak erabaki du aurten ez dela Estatu Batuetara joan, aurreko urteetan ez bezala, Nafarroako produktuak sustatzera. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

- Zer ondorio izanen ditu Nafarroako Gobernu Estatu Batuetara ez joateak eta Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez antolatzeak?

- Aurreko gobernuak adierazitakoaren arabera, ekitaldi horiek antolatu izanak helburu handinahiak lortzea ekarri zuen. Zer eragin izanen du helburu horietan erabakiak eta, kasua bada, nola kalteko ditu?

Iruñean, 2012ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularraren eleduna aldaztea.

2012ko maiatzaren 28an aurkeztutako idazki baten bidez Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak jakinarazi zuen Enrique Martín de Marcos jauna izendatzen zuela parlamentu-taldearen eledun, Ana Beltrán Villalba andrearen ordean.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea.

Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda

2012ko apirilaren 16ko 71. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko lanpostu huts bat –lanpostuak betekizun gisa du euskaraz jakitea– lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Deialdirako eskabideak aurkezteko epea amaituta,

ERABAKI DUT:

Lehena. Onestea, deialdiko 4. oinarriak xedatutakoarekin bat, lekualdatze-lehiaketan onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda. Hona:

Onartuak:

Gorka Aldaz Payan

Gentzane Goikoetxea Irigoyen

Baztertuak:

Carmen Aguirre López (*)

María José Mangado Cortés (*)

(*) 2.1.d) oinarrian ezarritako proba, euskararen jakintza egiaztatzekoa, gainditu ez izateagatik.

Bigarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamu-netik hasita bost egun naturaleko epean, interesdunek egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka, eta, akatsik izan bada, horiek zuzendu.

Tercero. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

